

ILLETARI

Neke-saminpean egon zan luzaro sendi txikia. Bizi ziran etxea, urrin be urrin! Bizitz-asmakames egiñak, betiko lañotu! Goibel lurra, ta goibelago biotzak.

Kriternek zarra, iñor baño len, bizitu ta sendo jarri zan. Aurrenengo, esan eban zur auzera, zer jan ta zegaz jantzia billatu bearko; onetzaz arduratzen ba'gara, berez datorke; gañerokoa.

Berba zur onein ostean ixil luze astuna; azkenik, Ama'k, Ibi'ea guraso alarganak, eban eban ixil-miesa, oneri iñotsola:

—Bai, nai ta ez, bizileku barri bat aukera bearrean gagoz, lengoak ez dauSKU aurreran tzean balio-ta.

Ibi'ek beretzat artu ebazan amaren itzok; beretzat ziran, izan be, ta egi gordintxoal noski. Bañu mutiltxoa gazteegi zan oindiño ezer ganoraz erantzuteko; gañera, guztiz atsekabeta, itz erditxo bat esateko beste etzala aurkitzen zan erukarria. Alan eta guzti be, aita laz-tana geiago etxeratuko etzan ezkeru, aurrerantzean bere amak, aitaitak eta icu anaitxoak bear eben okelea billatu ta egokitzea, bere zeregin naiezkatat artu eban.

Ostera be, nekezko berun-arriak ixilla eio eban luzaro arein artean.

Txakurrak, orduantxe bertan, zaunkaka asi ziran ate aurrean. Ibi' berez-berez arei zerbait jaten emotea otu yakon; eta amaren zear-esana beretzat artu ebala besteak be konturatzeko eduan, egitsu agertu zan, esanaz:

—Zer txarrak jazo dira gaur; baña dana dala, txakurrak ez daukie zetan gosez il. Ez dau gizonak atsedetik artu bear, arei jatekoa emon arte.

Ikerarik be ez eban, orraitino, andik egin. Eta barrero, neke-min itzala jausi zan danen gain.

—Bai, egia da; txakurrak askotxo jaten dabe, ta batez be, sarriegi —iñoan Ama'k.

Itz labur gurutzetu oneik giroa lar astundu eben ezkeru, aitaita zarrak oiu egin eban:

—Ba-leiteke, alan be, txakurrok eguneroko janari okela zati galanta ez dabela sinisten luster astea.

Au garratz samar esana zan, ziri ta eztenka. Ibi'ek, beintzat, orrela artu ebazan itzok, arraferarako ganora ta esku aundirik ez ba'len lez.

Eta orduantxe, eiza-arazoak barranean dakarzan arrisku ta galtzori guztiak lepogain arturik, itxas-abere ta pizti okerrenak be bildurtuko ez eben biotz-sendotasunez, eizara (kazara) urteteko asmoari bulartsu oratu entsan. Bai, zorion utsean ikusten ditu anaitxoak, eta zorion ori berak eratu ta emona dabece, ontzitoxan arrain ugari erotselako batez be.

Asmu au osotu ta biribiltzea ez ba'zan, besterik ezer buruan ezobillela, anaitxoan berbaroa etorkon kanpotik. Umeal errez aztu oi yakez gauzak. Morsa gaiztoak aita urperatzean amak egindako oia ta negarrak entzun ebezan, baita txabola barruan ikusia jaso be; baña ur-ollo aldra bat, eurak egozan lekutik ur-ur ikusirik, pozarren, izan eben zoritxar itunaz oso astuta, txakur txiki bi lagun ebezala, urten ziran danak astrapaladan txoriai atz emoteko asmuaz.

Ur-olloak egada laburrez urrintzen ziranean, gain etorkioen ama polito egaz, ta erpoz ikutu ta pizkat zapaldurik, eiztariak ondotik igarotzean, naita oneik alegiñak egia nun egozan igarri ez egien, lurrean arri koskor biribil antzera, geldi-geldi egon eitezala erakusten, asko saiatzen zan.

Ur-olloakaz jolasean alai ziarduen ezkeru, ez ziran mutikoak ezegaz konturatu, itxas-erazera eldu artean. Egazti atzetik aringa, Abiak lior-egalera zan, eta Ibi'ek txalupatxoa edertu ikusi eban ur aundian zabuka, intxaur eskola irudi; etzan, orraitino, aren sabelean iñor ageri. Ta orduan, anai txikiagoagana zuzendu zan, gidari ta gizonik bako ontz baten zoria adierazte naiean.

Otoni'k erantzun entsan:

—Ai, nire neba nagusiaren txalupa, oso zatituta geratu da, arrantzurako gauza ez dala; hakarrik be zabuka dabil. Aspian, bear bada, foka aundiren bat dauka, ta arek daragio bultz.

Deadar zolia jaurti eban Abiak'ek, etxean egozanak entzuteko beste zolia bai; oso arriturik eukan gauza miragarri a ez bai-izan edozelakon. Ezin eban aztu, egia, motxo baten be bere anai Ibi'. Txabolatik urtenik, ariñari emon entsan onek. Arrantzeale azartua izan eta

etxeokoi bearrizanetan laguntzeko erabagi artu ba-eban be, etzan au erabagi burubakoa, ontzitxoa biratu ta uretara botaten be ez ekian arren. Oraingoan, gañera, potintxoa orrela ipiñi ebana, nai ta ez itxasgora zan, ontzia egoan lior-uneraino eldu zalako.

Eta, oi! lena, aitaren eriotz ostean, umezurtz eta ezeren laguntasun barik itxi ebazana, zoritxar benetakoa ba-zan, aren antzeko zan oraingoa be. Zegaz bizia atara ez eukela gertan ziran gaixoak.

Alabearen deadar-ots entzunik ur-egalera zanean, zur eginda ikusi eban Ama'k zelan joian, geroago ta arutzago, Maniark'ek eskuz landu ta Ama'k berberak zurezko aga zuri gañean narnuak egokiro josi eutsozan ontzi polit liraña. Aiton zarrak be, albo bietan, astru edo gal-tzori-ezaugarriak ipiñi eutsozan, txalupa auskorra edozein tirabira ta arriskutik jabongo ebelakoan. Eurretan bat gabai-buruu ezker-eskuma ta atze-aurre zer jazoten zan jakin egian; itxas-txori edo gabaiak, izan be, urpean jazo oi dana, aurrez ezagutu ta jakin daroc. Au dala-ta, gabai-buru ori txalupatxoak kulunka geien eukan tokian ezarri eutson. Baña, orain a be urriñean galtzen zan, izotz-bizkarrakaz topoz egiteko arrisku gorrian; eta ezin zeikean, tamalez, ezzer egin ari oratu ta leku babesera ekarteko.

Azkenengoz, izotza gitxitzean, Uluaset'era joan ziranean erositakoakaz, eta Mariark'ek uda-barri aldera eizan pillotutako aragiagaz, lurraldetik urrin emon bear eben eperako aña bizi-garri ez euken. Eguneroko jataldiak egiteko bear-bearreko ebena, ta eguraldi txarretarako zerbait, ugarte aretan ez euken besterik.

Ibik'ek gogarte oneikaz itxas-ertzean ebillela, oin-otsak entzun ebazan atzetik. Aitaita zan etorrena; ta bere alboan geratu zut-zutik, beñola itxas barrura ainbat bidar zuzendu eban ontzitxoari begira. Uin edo olatuén jostallu zan orain, eta ez egoan biderik barrien barria aren jaube egiteko. Ezta ezelan be.

—Zoritxar bat ez oi da etorri, egundo be, bakarrik —marmaratu eban Kriteroek zarrak. Gerta bearra, axe gerta yaku, ez geiago ez gitxiago; ondo-aldi ta ngaritasuna, izan be, ezbehar eta urritasun biur oi dira-sarri askotan. Gaitzeko indarrak zauritu gaitu. Bein ogasun-iturri yakuna gaur zoritxar eta ezeuki. Ta au guzti au. Goiko txit audiaren al izate ta eskua eza-gutu ta aintzakotzat artu daiguzan da.

* * *

Eskimaldarren artean oitnura danez, Ibi'k'en ama bost gau ta bost egun 'oian zetzan, et jan ez lo. Senarraren prakakaz estali ebazan sorbaldak, aren adore ta indarrez jabetu naita; indarrok, izan be, nai ta ezko ebazan etxeokoi eutsi ta aurrera bultz eragiteko. Eskimalak uste dabenez, baten bat itxasoan iltén danean, bere soñeko siku billa datorke gero, bustien ordez jatzeko.

* * *

Umetxoak, beti jolas-min, laster aztu ebezan jazobarri ziran gertakizunak. Mariark, bere eizaldietan, egun-luzez etxetik kanpora izaten zan ezker, aren etorrerari zain egozan pozez gañezka; egun askoren ondoan be, beti-biurto oi zan, ba, eizakiz beteta.

—Ama, alan be, ez egoan bestectan lez. Zer ete eukan? Ixil-ixillik, begiak aidean ezzer ikusten ez ebela, ocan zirauan; zeozet itantzen ba'eutsoen, ez eban erantzuten; okelea egoz-teko agindu arren, ez eutsen jaramonik egiten. Zer eban? Noizean bein, negarrari emoten eutsan garratz, lertzerañoko ai-otsez. Orrelako aldi txarretan samur itz egin oi eutson aitaitak, negar ordez semeakaz arduratzeko ta abar-esanik. Bere eritxiz, Jaungoikoa iraintzen eban negar-zotinka.

Onaka baten Ibi'k, naita koskorra izan, eskutik goitxo aurkitzen zan aragitegiraño eldu zan saltoka; koipez lauskitu zatietan ebagitako okela legor arasa zan, loka-aragi gozozko zerrenda eder usaintsuakaz nastauta. Errezago iruntsiteko atal txikietan zatiturik, umetxoén artean banatu ebazan; eta oneik, bazkaldu ordukoxe, ase-beterik, loak artuta geratu ziran baztarretan kuzkur, zeru beste aldean eguzkia agertu zan arte guztian beintzat. Orduan jatu ta errekarra zuzendu ziran uretan, danak astrapaladan; eta an emon eben ordu bete ta geiago. Jolaska, goseak barriera barriz amaren altzora bultz eragin eutsoen artean. Iruretatik batek amatxogana eldu ta dei egin eutson zoli; baña ak ez eban ikerarik egin, ez txitik atara.